


Euskal Autonomia Erkidegoko industria-prezioek % 1,1 egin dute gora 2021eko abenduan, aurreko hilaren aldean

2020ko abenduarekin alderatuta, industria-prezioek % 12,7 egin dute gora

Euskal Autonomia Erkidegoko industria-prezioek % 1,1 egin dute gora 2021eko abenduan, aurreko hilaren aldean, EUSTATen datuen arabera. Abenduko urte arteko tasa –azken hamabi hileetako industria-prezioen aldakuntza jasotzen du– % 12,7koa da.

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Analisi zehatzago batek erakusten du 2021eko abenduan prezioetan aurreko hilaren aldean hazkuntza nabarmenenak izan dituzten sektoreak honako hauek izan direla: *Erauzketa-industriak* (% 6,9), *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 4,9) eta *Industria kimikoa* (% 2,0). Aitzitik, prezioetan hil arteko jaitsiera izan duten sektoreak honako hauek izan dira: *Kokeriak eta petrolioaren finntzea* (% 1,7ko jaitsiera), *Ura* (% 1,0ko jaitsiera) eta *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta oinetakoen industria* (% 0,7ko jaitsiera).

Helburu ekonomikoaren araberrako ondasunen sailkapenari jarraikiz, prezioen aldakuntzak, aurreko hilarekin alderatuta, positiboak izan dira kasu guztietan, *Kontsumo iraunkorreko ondasunen* kasuan izan ezik; azken horietan, aldakuntza negatiboa izan da (% 0,2). *Kontsumo ez-*

iraunkorreko ondasunen prezioak % 0,7 igo dira, eta hil arteko % 0,5eko igoera eragin dute Kontsumo-ondasunetan. Aurreko hilabetearen aldean, prezioek % 0,2 egin dute gora Ekipo-ondasunetan, % 1,2 Tarteko ondasunetan eta, azkenik, % 1,7 Energian.

Euskal AEko Industria prezioen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Abendua 2021

	INDIZEA	ALDEAREN %	
		m / m-1	m / m-12
INDIZE OROKORRA	115,0	1,1	12,7
SEKTORE-BANAKETA			
Ateratze-industriak	110,9	6,9	3,9
Manufaktura-industria	114,0	0,4	10,4
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	109,5	0,6	2,3
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	103,9	-0,7	-3,4
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	115,3	2,2	12,4
Kokeak eta petrolioaren finitzen	125,1	-1,7	37,4
Industria kimikoa	126,1	2,0	14,9
Botiken fabrikazioa	113,1	1,5	2,8
Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	101,8	0,3	2,8
Metalurgia eta produktu metalikoak	121,2	1,3	16,4
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	112,2	0,6	4,3
Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa	107,4	0,0	2,5
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	105,8	0,0	2,3
Garraiorako materialen fabrikazioa	106,4	0,1	-2,3
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa	109,4	0,3	2,7
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	121,3	4,9	28,3
Ura	111,1	-1,0	1,5
INDUSTRIA-SEKTORE HANDIEN ARABERA			
Kontsumo-ondasunak	110,0	0,5	2,3
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	106,6	-0,2	2,2
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	110,6	0,7	2,3
Ekipo-ondasunak	109,9	0,2	1,7
Bitarteko ondasunak	114,8	1,2	11,2
Energia	126,0	1,7	35,9

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m / m-1: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2021eko Abenduaren 20a

Iturria: Eustat. Industria Prezioen Indizea

Urte arteko terminoetan –2021eko abendua 2020koaren aldean–, prezioen igoerarik handienak honako adar hauetan izan dira: *Kokeriak eta petrolioaren fintzea* (% 37,4), *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 28,3) eta *Metalurgia eta metalezko produktuak* (% 16,4). Aitzitik, behera egin dute prezioek *Ehungintzan, jantzigintzan, larrugintzan eta oinetakoetan* (% 3,4) eta *Garraio-materialaren fabrikazioan* (% 2,3).

Helburu ekonomikoaren arabera ondasunen talde handien prezioen aldakuntza urte arteko aldian positiboa izan da horientzat guztientzat. Prezioek gora egin dute *Energian* (% 35,9), *Tarteko Ondasunetan* (% 11,2) eta *Ekipoko Ondasunetan* (% 1,7). *Kontsumo-ondasunek*, oro har, % 2,3ko hazkundera izan dute prezioetan, *Kontsumo iraunkorreko ondasunen* prezioak % 2,2 igo direlako eta *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunen* prezioak % 2,3 igo direlako.

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62